

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3750

1406/2022 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 902/2022 Ebazpenaren bidez, Goi Mailako Teknikaria lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna Ekonomialaria (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala) kategoriaren oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAA-n argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

Batzordeburua:

- Titularra: Armentia Arsuaga, Iñaki.
- Ordezkoa: Peña Suarez, Maria Jesus.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Acaiturri Ayesta, Maria Teresa.
- Ordezkoa: Merino Beltran de Heredia, Fernando.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Martinez de Guereñu Ortuoste, Elena.
- Ordezkoa: Aguirre Arratibel, Javier.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Martinez Llorente, Jose Miguel.
- Ordezkoa: Quintas Gomez, Jose Luis.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Ortega Ortega, Carolina Maria.
- Ordezkoa: Roca De La Puente, Eduardo.

Idazkaria:

- Titularra: Basurto Neira, Idoya.
- Ordezkoa: Bravo Suarez, Maria Elena.